



III AKTA

Gaia: Enpresa Arduradunaren lanpostua betetzeko langileen aukeraketa-prozesua Euskadiren Estatu Batuetako Ordezkaritzan lan egiteko. Ezagutza probaren behin-betiko emaitzak.

Prozesua:

Euskadiren Estatu Batuetako Ordezkaritzan Enpresa Teknikari bezala lan egiteko kontratazio prozesua da.

Prozesuak hiru fase ditu:

1. Hautagaien aurkezpena eta aukeraketa.
2. Ezagutza proba.
3. Elkarrizketa pertsonala eta merituen balorazioa.

Aukeraketa-prozesuaren 2 eta 3 faseak deialdiaren oinarrietan azaldutako azterketaren bi faseei dagozkie (Deialdiaren 6.2 atalean): oposizioarena, bi ariketaz osatuta dagoena (ezagutza proba eta elkarrizketa pertsonala) eta merituen balorazioa.

Deialdiaren oinarrien arabera, ezagutza proba fasean lanpostuari lotutako eginkizunekin zerikusi zuzena duen azterketa bat egingo da, zeina nahitaezkoa eta baztertzaila izango den. Gehienez ere 30 puntuko puntuazioa lortu ahal izango da, eta 15 puntu lortzen ez dituzten hautagaiak kanporatuta geratuko dira.

Erreklamazio eta zuzenketa epeen ostean, onartutako behin betiko 5 hautagaien artean, guztiak (5) aurkeztu ziren ezagutza proba egitera. Proba honek bi zati ditu: lehengoa aukera anitzeko test batez osatuta eta bigarrena lanpostuari lotutako eginkizunekin zerikusi zuzena duten galdera motzekin osatuta.

Ezagutza proba modu telematikoan egin zen, Epaimahai kalifikatzaileak adostu eta onartutakoaren arabera, 2021eko maiatzaren 3an, astelehena, 11:30etatik 12:45etara.

Ondoren, erreklamazio epea hasi zen, non ez zen erreklamaziorik aurkeztu. Maiatzaren 17an erreklamazio aldia amaitu zen.



Beraz, ezagutza proba gainditu eta prozesuaren hurrengo fasera pasatzen diren behin-betikoko hautagaien zerrenda hau da (puntuazioaren arabera ordenatuta):

Erregistro zenbakia	Aukera anitzezko testa	Lehenengo galdera motza	Bigarren galdera motza	Guztira
4048822	20	2,5	2,5	25
4051753	19	1,5	2	22,5
4050142	17	2,25	2	21,25
4047495	14	2,5	2,25	18,75

Ezagutza proba gainditu dituzten hautagaiei aukeraketa-prozesuaren hirugarren fasean parte hartzea deituko zaie. Elkarriketa pertsonalaren eguna, ordua, formatua, baldintzak eta beharrezko argibideak modu indibidualen komunikatuko dira.

New Yorkeko hirian, 2021eko maiatzaren 19an.

Unai Telleria
Ordezkarria

Euskadiren Estatu Batuetako Ordezkaritza
Epaimahai Kalifikatzaileko Mahaiburua

Felipe Victoria
Erakunde Arduraduna

Euskadiren Estatu Batuetako Ordezkaritza
Epaimahai Kalifikatzaileko Idazkarria